



jakinbai.eus
heziraul.eus
lhdualaeuskaraz.eus
Ekinbira.sitea
 ☎ 943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus

2025-26 KATALOGO BERRIA

LHko euskarazko materialen katalogo berria argitaratu da

Edukiak:

- ✓lanbide-familia bakoitzeko material azpimarragarrien zerrenda
- ✓modulu berrien materialen zerrenda
- ✓lanbide-familien terminoen hiztegia argibideak

KATALOGOA



MATERIAL BERRIAK

SolidWorks CAM aplikazioaren oinarriak

Ordenagailuz Lagundutako Fabrikazioa moduluaren Solidworks CAM aplikazioa erabiltzen da hainbat ikastetxetan, tartean Eibarko Armeria Eskolan, eta ez dago euskarazko ikasmaterialek. Lan honek hutsune hori bete nahi du. Armeria Eskolak sustatutako ikasmaterialek da eta IRALE programako R400 ikastaroaren bitartez garatu da. proiektu hau, oinarrian, bideo tutorial-sorta bat da, ikasleek beren erritmoan eta modu asinkronoan erabiltzeko sortua. Solidworks CAMen funtzionamenduen irudi orokorra eskaintzen du, aurrerago sakontzen jarraitzeko. Bideoak pieza-eredu batetik abiatzen dira eta SolidWorks CAM programan jarraitu beharreko prozesu guztia erakusten dute. Piezaren 3D ereduaren fixategia eskuragarri dago, bideoekin batera. Bideoez gain, eskuliburu bat sortu da, ikasmaterialearen nondik norakoak erakusteko eta ikasleek bideoetako azalpenak jarraitzeko eta erregistratzeko.

Jakinbai Laneki — 2025/05/19



Produktzio-sektoreei aplikatutako digitalizazioa

Material hau ZUZENDU GABE eta GAINBEGIRATU GABE dago. BEHIN-BEHINEKO materiala da, beraz 2015eko UZTAILETIK aurrera izango duzue behin-betiko materiala eskura. Digitalizazioak ekoizpen-sektoreetan duen eraginari buruzko ikuspegi argia, egituratua eta praktikoa eskaintzen du liburu honek. Teoriaz haratago, teknologia gaitzaile digitalak (THD) ulertzeko eta aplikatzeko tresna zehatzak eskaintzen ditu, industria, zerbitzuak eta enpresa-kudeaketa aldatzen ari baitira. Adimen artifizialek hasi eta hodeiko konputazioa arte, robotika kolaboratibotik, blockchainetik, biki digitaletatik eta 4D inprimaketatik igaroz, kapitulu bakoitzak modu argi eta praktikoa banakatzen ditu enpresa-mundurako dituen aplikazioak eta onurak.

Jakinbai Laneki — 2025/05/05



"Jasangarritasuna ekoizpen sistemari aplikatua" modurako irakaskuntza gida

Irakaskuntza gida honen helburua da "Jasangarritasuna ekoizpen sistemari aplikatua" modulu irakastea eta irakaskuntza emaitzak betetzea erraztea. Horretarako, 8 unitate didaktiko (UD) irakastea proposatzen da, irakaskuntzaren emaitzen idotik, eta 7. unitate didaktiko bat proiektua) ere. Sartutako proposamenek laguntza gida bat izan nahi dute, eta irakasle bakoitzak erabakiko du proposamen horiek erabili ala ez.

Jakinbai Laneki — 2025/04/10



ENPLEGURAKO IBILBIDE PERTSONALA I: 1. ikaskuntza-emaitza

Lan honen helburu nagusia EIP1 modulu 1. eduki-blokea (1. IE, 4. IE eta 5. IE) lantzeko euskarazko materiala sortzea izan da. Bestetik, EIP1 modulu 1 irakasle guztiek irakasgaia emateko material erabilgarria eta praktikoa sortzea euskaraz. Horretarako, ikaskuntza-emaitzaren arabera antolatuta da material hau, moduluak eronketan zein moduluaren artekoetan baliagarria izan dadin, eta ikasteke bakoitzak bere errealitateara egokitzeko aukera izan dezan. Material honek EIMA onespina dauka eta behin-behinekoa da. Behin-betiko materiala EIMA katalogoan argitaratuko da eta orduan, hemen ere eguneratu egingo da.

Jakinbai Laneki — 2025/04/08



Material berriak



jakinbai.eus
heziraul.eus
lhdualaeuskaraz.eus
[Ekinbira sitea](http://Ekinbira.sitea)
 ☎ 943 376 532
jakinbai@jakinbai.eus



EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

EUSKO INDIARITZA GOBERNO VASCO



ZUZENKETA ESKAERAK IRALERA BIDALTZEKO


Irakasleek sortutako euskarazko materialen zuzenketa

Sortutako materialak, hizkuntzari dagokionez, berrikustea nahi izanez gero, bidali materiala hona:
jakinbai@jakinbai.eus


Irale zuzenketa zerbitzura bideratuko ditugu eskaerak.

ULIBARRI II. TOPAKETA

[Ulibarritarron](#) II. Topaketan partekatuko dira Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programako ikastetxeen praktika onak



Ulibarri II. Topaketa: ekainak 10, Landako, Durango.



Praktika onak kontsultatu ditzakezue Ulibarriko sitean:
[praktika onen bilduma](#)

GARAPEN JASANGARRIRAKO 18. HELBURUA: ANIZTASUN KULTURAL ETA LINGUISTIKOA

2030. Agendan txertatu du Euskadik 18. GJHa, hizkuntza eta kulturak etorkizuna eraikitzeke aintzat hartu eta sustatzeko



[Albisteak](#)

HIZKUNTZA GUTXITUETAKO GAZTE HIZTUNEN TOPAKETA ([HIGA](#))

2025eko uztailaren 14tik 18ra izango da, Gasteizen



HIGA 2025 EDIZIOA

[Programa eta jarduerak](#)

[Izena-eman](#)

Izena emateko jarri harremanetan antolatzaileekin



jakinbai.eus

heziraul.eus

lhdua@euskaraz.eus

[Ekinbira sitea](#)

☎ 943 376 532

jakinbai@jakinbai.eus



EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

EUSKO INJENIARIA GOBERNUO VASCO

